



4/2026 INSTRUKZIOA (LLBB-4/E-4)

GAIA: Kirol ekitaldiak: egutegia, segurtasuna, izapidetzea eta baimena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari dagokio hiriarteko bideetan eta bere eskumeneko zeharbideetan egiten diren "kirol probak, txirrindularitza martxak eta beste ekitaldi batzuk" (aurrerantzean, kirol ekitaldiak) baimentzeko eskumena.

Zehazki, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, baimena emateko eginkizuna Trafikoko Lurralde Bulegoei (aurrerantzean lurralde bulegoak) dagokie, bakoitza hari dagokion lurralde eremuan. Era berean, organo horiei dagokie nahitaezko txostenak egitea kirol ekitaldia zati batean EAEko hiriarteko bideetatik egiten denean eta baimena ematea beste administrazio-organo bati dagokionean (DGT).

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen du pertsona jakin batzuek eskubidea eta betebeharra dutela Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izateko, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako, eta, halaber, interesdunek erabili behar dituztela administrazioek prozedura jakin batzuetarako ezartzen dituzten eskabideak aurkezteko eredu espezifikoak.

Kirol-ekitaldiak baimentzeko prozedura azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren (ZEO) II. eranskinean dago araututa.

Hala ere, eta metatutako esperientziagatik, baimen-prozeduraren zenbait alderdi egokitu behar dira, bai espedienteen izapidetzea arintzeko, bai eta kirol-ekitaldiak egin ahal izateko baimenak behar den denborarekin ematen direla bermatzeko ere, ekitaldi horiek egiteko segurtasun baldintza eta segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Ildo horretan, jarraibide honek hainbat jarraibideren indarreko edukia bildu eta kirol ekitaldiak baimentzeko prozedura egokitu nahi du. Halaber, helburua da argitzea zer ulertu behar den kirol ekitaldi gisa, eta zer administrazio ebazpenek eman behar dion amaiera espedienteari.



Jarraibide honek sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrik gabe utziko ditu 24/2000, 9/2005, 1/2006, 8/2006 eta 5/2023 jarraibideak.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Estíbaliz Olabarri González
TRAFIKOKO ZUZENDARIA

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA.- Errepidearen ez ohiko erabilera. Baimenak eta jarraibideak.
- II. ERANSKINA.- Baimena behar duten kirol ekitaldiak.
 1. gehigarria – Kirol-ekitaldien urteko egutegia egitea.
 1. Egutegia egiteko eskema.
 2. Onartutako egutegia aldatzea.
 3. Onartutako egutegia argitaratzea.
 4. Egutegian jaso gabeko kirol ekitaldien eskaerak.
 2. gehigarria – Kirol ekitaldien kontrola eta ordena.
 3. gehigarria – Polizia agenteak kirol ekitaldiak kontrolatzeko eta ordenatzeko prest egoteko irizpideak.
 - A. Lanegunetan.
 - B. Asteburuetan/jaiegunetan (ez-murriztuak).
 - C. Murriztapen egunak.
 - D. Baimena ez emateko arrazoiak.
 - E. Polizia estaldura.
 - F. Txirringularitza martxak: polizia kontrolaren hasiera eta amaiera.
 4. gehigarria – Baimena eskatzeko eta emateko prozedura.
 - A. Interesdunak.
 - B. Izapidetzeko eskumena duen organoa.
 - C. Eskaera.
 - 1) Aurkezteko epea.
 - 2) Eskaera inprimakia.

3) Eskaearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (eskaera inprimakiko "dokumentazioa" atalean sartu behar dena).

4) Eskaera egiteagatik ordaindu behar den tasa.

D. Bulegoaren izapidetzea.

1) Nahitaezko txostenak.

2) Ertzaintzaren txostenaren edukia.

3) Ertzaintzak egin beharreko kontrol- eta ordena-lanengatiko tasaren likidazioa.

E. Ebazpena eta jakinarazpena.

5. gehigarria – Aseguruak.

1. Erantzukizunpeko adierazpena.

2. Estaldurak.

3. Aseguru polizei eta debekatutako klausulei buruzko argibideak.

6. gehigarria – Segurtasuneko plan operatiboa. Edukia.

1. Baliabideen deskribapena.

2. Puntu eta tarte arriskutsuen kokapena.

3. Errepideen itxierak.

4. Ibilbidea (rutometroa).

5. Laguntzaileentzako jarraibideak.

III. ERANSKINA.- Jarraibideak jaso behar dituzten kirol ekitaldiak.

1. gehigarria – Jarduera horien baldintza bereziak.

2. gehigarria – Kirol ekitaldien urteko egutegia egitea.

3. gehigarria – Jarraibideak eskatzeko prozedura, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

A. Interesdunak.

B. Izapidetzeko eskumena duen organoa.

C. Komunikazioa.

1) Aurkezteko epea.

2) Komunikazio inprimakia.

3) Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (eskaera inprimakiko "dokumentazioa" atalean sartu behar dena).

D. Bulegoaren izapidetzea.

1) Nahitaezko txostenak.

2) Ertzaintzaren txostenaren edukia.

3) Ertzaintzak egin beharreko kontrol- eta ordena-lanengatikotasaren likidazioa.

E. Ebazpena eta jakinarazpena.

4. gehigarria – Aseguruak.

5. gehigarria – Segurtasuneko plan operatiboa. Edukia.

IV. ERANSKINA. – PROZEDURAREN KOORDINAZIOA.

V. ERANSKINA.- AUTOMOBILISMOA: ALDI BATERAKO ZIRKULAZIO-BAIMENAK DITUZTEN IBILGAILUEK IBILGAILU MOTORDUNEKIN EGITEN DITUZTEN KIROL-PROBETAN PARTE HARTZEA (PLAKA GORRIAK DITUZTEN IBILGAILUAK).

VI. ERANSKINA.- KIROL EKITALDIEN BALDINTZAK, EKITALDI MOTAREN ARABERA.

VII. ERANSKINA - TRAFIKOKO LURRALDE BULEGOEN TXOSTENA, BESTE ADMINISTRAZIO ORGANO BATZUEK BAIMENDU BEHARREKO KIROL EKITALDIEI BURUZKOA.

I. ERANSKINA: ERREPIDEAREN EZ OHIKO ERABILERA. BAIMENAK ETA JARRAIBIDEAK.

Errepideak pertsonak eta salgaiak ibilgailu motordunetan garraiatzeko lurreko komunikabide gisa diseinatuta daude. Bidearen beste edozein erabilera ez da arrunta izango. Gainera, trafikoa oztopatzen duen guztietan, trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko ardura duen agintaritzak esku hartu beharko du, bai trafikoaren arintasunerako interferentzia hori baimenduz, bai trafikoa arautzeko jarraibide batzuk emanez.

Ildo horretan, ZEOren II. eranskinak baimena noiz behar den, zein baldintza bete behar diren eta baimena ematen duen organoa nor den adierazten du.

Zeintzuk dira zirkulazioa oztopatzen dituzten bidearen ez ohiko erabilerak?

Ibilgailu motordunen zirkulaziorako diseinatutako, eraikitako eta seinaleztatutako errepideetako galtzada eta/edo bazterbidea osorik edo zati batean okupatzen duten jarduera guztiak dira.

Jarduera horiek errepidearen ez ohiko erabileragatiko baimenak edo trafikoa arautzeko jarraibideak behar dituzte.

Nork baimentzen ditu zirkulazioa oztopatzen duten bidearen ez ohiko erabilerak, edo nork ematen ditu trafikoa arautzeko jarraibideak?

Trafiko Zuzendaritzak eskumena dauka ekitaldi horiek hiriarteko bideetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko zeharbideetan egiten direnean.

Zein kirol ekitaldik behar du baimena?

Baimena beharko dute ondorengo kirol ekitaldiek: beren ibilbidean hiriarteko bideak edo zeharbideak zeharkatzen dituztenak, baldin eta parte-hartzaileek jarraitzen dituzten parte hartzeko arau gehienak bateraezinak badira gainerako erabiltzaileen arauak eta seinaleak errespetatzearekin, eta zirkulazioaren arintasuna eta segurtasuna oztopatzen dutenean. Hala, baimena beharko dute:

- Kirol probak: antolatutako kirol ekitaldi lehiakorrak.
- Txirrindularitza martxak: 50 parte hartzaile baino gehiago dituzten kirol ekitaldi antolatuak, kirol-, turismo- edo kultura-xedeetarako ariketa fisiko gisa sortuak.

Beste zein ekitalditarako emango da baimena?

Ibilgailu historikoak dituzten ekitaldiek eta hiriarteko bideetan edo zirkulazioa oztopatzen duten zeharbideetan egin beharreko filmaketa zinematografikoek baimena beharko dute.

Zein ekitalditan emango dira trafiko jarraibideak?

Bide publikoan egiten diren interes orokorreko jarduerak, hala nola segizioek, kabalgatek, prozesioek eta, oro har, kultura edo aisia errotuta duten jarduerak trafiko jarraibideak baino ez dituzte beharko. Filmaketa zinematografikoak, aurreko paragrafoan aipatutakoak, ez dira kultura- edo aisialdi-ekitaldiak, merkataritza-ekitaldiak baizik.

II. ERANSKINA: BAIMENA BEHAR DUTEN KIROL EKITALDIAK.

1. gehigarria – Kirol ekitaldien urteko egutegia egitea.

Trafiko Zuzendaritzak baimentzen dituen ekitaldi gehienak kirol ekitaldiak dira, eta eragin handia dute edo izan dezakete trafikoan.

Orain arte, urtero onartu izan dira kirol ekitaldien egutegiak. Egutegi horietan ekitaldien antolatzaileen asmoak eta Administrazioak ekitaldien kontrola eta ordena segurtasun baldintzetan egiteko duen prestasuna bateratzen da.

Urteko egutegiaren helburua da urtean egingo diren kirol ekitaldiak jasotzea. Hala ere, egutegiak egiteko eta aldatzeko prozedura eta horien ondorioak finkatu behar dira.

Egutegian data erreserba ez da absolutua, data aldatu daitekeelako edo ekitaldia egin ez daitekeelako, baina oztopo bat da egutegian jasota ez dauden kirol-ekitaldiak egiteko. Hau da, ekitaldien datak bat ez badatoz, egutegian izena emanda daudenek izango dute lehentasuna.

1.- Egutegia egiteko eskema.

Egutegia egitea funtsezkoa da inplikaturako organoek behar dituzten baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa programatzeko aukera ematen baitu. Horrela, kirol proba oro baimentzeak dakarren administrazio- eta polizia-lana sinplifikatu daiteke. Edozein fasetan erantzuna edo ekarpenak bidaltzeko epea 10 egunekoa izango da.

AGENTEAK	EKINTZA	DATA
Trafiko Zuzendaritzak (TZ) Trafiko Ertzaintzari (LTU)	Eskaera: - Kirol-probetarako ¹ polizia-baliabideak eta -estaldura- irizpideak berrestea, bai eta laguntza-mota ere. - Zirriborroari egindako ekarpen arrazoituak, KKEEak egiteko data murriztuak.	Urria
Trafiko Zuzendaritzak (TZ) Trafiko Lurralde Bulegoei (TLB)	Helarazpena: - KKEEak egiteko data murriztuen zirriborroa, LTUren ekarpenekin.	Urria
TZk TLBei	Federazioei bidali, honako hauek helarazteko: - KKEEak egiteko data murriztuen behin betiko eranskina, eta, halakorik balego, prestasun irizpideetan aldaketaren bat egin izanaren jakinarazpena.	Urria/azaroa
TZk TLBei	Eskaera: - Aurtengo KKEEetako gorabeheren txostena, formatu bateratuan.	Azaroa
TLBk federazioei (KF)	KKEEen egutegiaren proposamena egiteko, bidali: - Behin betiko eranskina: KKEEak egiteko egun murriztuak eta erabilgarritasun-irizpideetan aldaketaren bat egin dela jakinaraztea.	Azaroa
TZk a KFri	Gorabeherak jakinarazi, edo deialdia Lakuan.	Azaroa
KFk TLBei	Federazio bakoitzak KKEEen egutegi proposamena helaraziko du.	Azaroa/abendua
TLBk TZ eta LTUri	Federazioek aurkeztutako egutegiak helarazi.	Abendua
KF, TZ eta LUT	Federazioen egutegien proposamena berrikusteko bilera: - Gatazkarik ez badago: onartu egiten da - Gatazkak jarraitzen badu: lurralde bulegoak egutegia zehazten du	Abendua
TLBk a TZri	Onartutako egutegiak bidali, argitaratzeko.	Abendua/Urtarrila

¹Polizia-estaldurarako baliabideak eta irizpideak, eta laguntzea eta gainbegiratzea zer probari dagokion, jarraibide honen IV. eranskinean daude finkatuta, eta jarraibide horiek beteko ez badira informatu beharko da, soilik.

2.- Onartutako egutegia aldatzea.

Urteko lehen hiruhilekoan aukera egongo da onartutako egutegiak aldatzeko. Eskabidea kontuan hartzeko polizia baliabideen eskuragarritasun irizpideak eta onartutako eta argitaratutako egutegia errespetatu beharko ditu.

Aldaketa onartu aurretik, Trafiko lurralde bulego eskudunak txostena eskatu beharko dio dagokion lurralde trafiko unitateari.

Aldaketa guztiak Trafiko Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, argitara ditzan.

3.- Onartutako egutegia argitaratzea.

Kirol-ekitaldien behin betiko egutegia www.trafikoa.euskadi.eus webgunean argitaratuko da urtero, inplikaturako eragile guztiek eta Trafiko Zuzendaritzak zaindu eta kudeatzen dituen bideen erabiltzaile guztiek horren berri izan dezaten.

4.- Egutegian jaso gabeko kirol ekitaldien eskaerak.

ZEOren II. eranskinean eta instrukzio honen V. eranskinean xedatutakoa betetzeaz gain, egutegian jasota ez dauden ekitaldien eskaerak soilik baimenduko dira baldin eta eskatutako datak eta ordu-tegiak konprometituta ez badaude, eta honako hauekin talka egiten ez badute:

- Kirol ekitaldiak egiteko data murriztuak.
- Instrukzio honetan jasotako eskuragarritasun irizpideak.
- Egutegian beste kirol ekitaldi batzuk egiteko aurreikusitako datak.

2. gehigarria – Kirol ekitaldien kontrola eta ordena.

ZEOren II. eranskinak poliziaren presentzia arautzen du, bai kirol probetan (5. eta 9. artikulak), bai eta txirringularitza martxetan ere (19. eta 23. artikulak).

Kontrolari eta ordenari buruzko arau horietatik ondoriozta daiteke agintaritza agenteak ez direla kirol ekitaldien segurtasuna lortzeko tresna bakarra. Hala ere, nahitaez egon behar dira kirol ekitaldietan, parte hartzaileek okupaturako bide eremuaren hasiera eta amaiera markatzeko.

Beraz, kirol ekitaldietan poliziak duen presentzian oinarrituta, agintaritzaren agenteen bi jarduketa mota definitu daitezke: gainbegiratzea eta laguntzea.

- Agenteeek gainbegiratze lanak egingo dituzte, eta horretarako behar diren neurriak hartuko dituzte, ekitaldiak irauten duen bitartean kirol ekitaldiaren antolatzaileek pertsonen segurtasuna bermatzen dutenean. Kasu horietan, antolatzaileak aurkeztutako plan operatiboak Trafiko Unitate informatzailearen oniritzia eduki behar du, eta txosten horretan jasotako iradokizunak onartu behar ditu.
- Agintaritzaren agenteen jarduera laguntzekoa izango da antolatzaileak bermatzen ez dituen zereginak bete behar dituztenean. Jarduera mota horrek langile gehiago behar ditu.

Hortaz, agenteek egin beharreko jarduketa motak honako hauetan eragina izango du:

- Kirol ekitaldian egongo diren agenteetan.
- Ekitaldiaren antolatzaileek gaitutako langileetan.

Hurrengo taula honek agintaritzako agenteek egin beharreko jarduketa erakusten du, kirol ekitaldi motaren arabera: laguntza ematea edo gainbegiratzea.

Ekitaldi mota	Polizia jarduketa mota: Laguntzea edo gainbegiratzea
Kirol probak (KKPP)	
Estatikoak edo zirkuitu itxian (Adb.: Automobilismoa)	<p>Poliziak gainbegiratze lanak egingo ditu jarduerak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela bermatzeko, bai eta baimenean, txostenetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoa behar bezala betetzen dela bermatzeko ere.</p> <p>Baimenean poliziaren laguntza jaso daiteke bidegurutze eta lotura tarteetan laguntzaileei laguntzeko.</p>
Bideetatik (Adb.: Rallyak, oinezko lasterketak)	<p>Poliziak gainbegiratze lanak egin ditzake ibilbideko errepide zatietan, eta, bereziki, bidegurutzeetan edo lotura tarteetan ebakiak egiteko, seinaleztapena ezartzeko eta laguntzaileen lana ikuskatzeko. Baimenean ezarritakoa behar bezala betetzen dela gainbegiratuko du, eta baimenean, txostenetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoa betetzen dela zainduko du. Errepide zatietan arreta jarriko</p>

		<p>du.</p> <p>Baimenean poliziaren laguntza jaso daiteke bidegurutze eta lotura tartetan laguntzaileei laguntzeko. Gaitutako langileek lehiaketarako mugatutako espaziorako sarbideak gainbegiratuko dituzte, parte hartzaileak zirkulazio arrunteko tartetan sartzen direnean kontrolatuko dituzte, eta gainerako ordena- eta kontrol-lanak gainbegiratuko dituzte ere bai. (141 RGC).</p>
Errepideetatik duatloiak/triatloiak, txirrindularitza)	(adb.:	<p>Polizia laguntza behar da trafikora itxitako espazioaren hasiera eta amaiera seinaleztatzeko, eta ibilbideak bide zatiren bat barne hartzen badu, parte hartzaileei errepide zatietatik bakarrik lagunduko zaie, zirkulazio arrunteko tartea direnean izan ezik. Trafikora itxitako espazioaren hasiera eta amaiera seinaleztatu behar da, ekitaldiaren baimenak kontrakoa xedatzen ez badu, eta, bide zatietan eta zirkulazio arrunteko bide zatietan izan ezik.</p> <p>Gaitutako antolakuntzako laguntzaileek honako hauek kontrolatuko dituzte: lehiaketarako mugatutako espaziorako sarbidea, parte hartzaileak zirkulazio arrunteko tartetan sartzea, eta gainerako ordena- eta kontrol-lanak.</p> <p>Gaitutako antolakuntzako laguntzaileek ZEOren 141. artikulua araberako beteko dituzte beren eginkizunak, langile finkoekin (bereziki leku arriskutsuetan daudenak) edo erakundeko lotura motozikletekin, itxiera egiteko.</p>
Kirol martxak		
Txirrindularitza bideetan zehar	martxak	<p>Poliziak gainbegiratze lanak egin ditzake bereziki bidegurutzeetan edo lotura tartetan ebakiak egiteko, seinaleztapena ezartzeko eta laguntzaileen lana ikuskatzeko. Baimenean ezarritakoa behar bezala betetzen dela gainbegiratuko du, eta baimenean, txostenetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoa betetzen dela zainduko du. Errepide zatietan arreta jarriko du.</p> <p>Gaitutako antolakuntzako laguntzaileek honako hauek kontrolatuko dituzte: lehiaketarako mugatutako espaziorako sarbidea, parte hartzaileak zirkulazio arrunteko tartetan sartzea, eta gainerako ordena- eta kontrol-lanak. (141 RGC).</p>

<p>Txirrindularitza errepideetan</p> <p style="text-align: right;">martxak</p>	<p>Polizia laguntza behar da trafikora itxitako espazioaren hasiera eta amaiera seinalezatzeko ekitaldiaren baimenak kontrakoa xedatzen ez badu, eta, bide zatietan eta zirkulazio arrunteko bide zatietan izan ezik. Ibilbideak bideko tarteren bat hartzen badu, partehartzaileei zirkulazio arruntekoak diren errepide zatietatik bakarrik lagunduko zaie.</p> <p>Gaitutako antolakuntzako laguntzaileek honako hauek kontrolatuko dituzte: lehiaketarako mugatutako espaziorako sarbidea, parte hartzaileak zirkulazio arrunteko tartetan sartzea, eta gainerako ordena- eta kontrol-lanak.</p> <p>Gaitutako antolakuntzako laguntzaileek ZEOren 141. artikulua araberako beteko dituzte beren eginkizunak, langile finkoekin (bereziki leku arriskutsuenetan daudenak) edo erakundeko lotura motozikletekin, itxiera egiteko.</p>
--	---

Esandako guztia gora behera, kirol ekitaldi baten eskaera izapidetzean agenteek egin beharreko jarduketa mota alda daiteke, trafiko unitateak egin behar dituen txostenak kontuan hartuta. Azken batean, lurralde bulegoak izango du eskumena hiriarteko bideetan eta zeharbideetan egiten diren ekitaldi guztietarako zaintza zerbitzu egokiak ezartzeko, eta baimenean ezarriko ditu.

3. gehigarria – Polizia agenteak kirol ekitaldiak kontrolatzeko eta ordenatzeko prest egoteko irizpideak.

A. LANEGUNETAN.

Baimena salbuespenezkoa izango da, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- Merkataritza jardueraren puntako ordukin edo laneko joan-etorriekin bat ez etortzea.
- Ibilbidea bide nagusietatik ez igarotzea (lehentasunezko sarea eta oinarritzko sarea).

B. ASTEBURUETAN/JAIEGUNETAN (EZ MURRIZTUAK).

Irizpide orokorra: 2 proba egun bakoizteko (1 goizean/1 arratsaldean).

Salbuespenak:

- Eguneko proba 1: nazioartekoak, UCI, Élite Pro Tour edo estaldura zabala behar dutenak (adib.: Espainiako Itzulia, Itzulia, Emakumezkoen Euskal Itzulia, Bizkaiko Itzulia, Zarauzko Triatloia, Donostia-Donostiako Klasikoa, Ordiziako Klasikoa, Txuma Memoriala, Getxoko Zirkuitua, Fondo Orbea Handia, Fondo Bibe Handia, Bilbao-Bilbao txirrindularitza Martxa, Bilboko Triatloia edo beren ezaugarriengatik polizia estaldura zabala eskatzen duen beste edozein).
- Aldibereko probak: bigarren probak gainbegiratzera edo gutxieneko estaldura baino behar ez duenean.

C. MURRIZTAPEN EGUNAK.

Ez da kirol probarik edo txirrindularitza martxarik egingo.

- Salbuespena: nazioartekoak, UCI edo nazioz gaindiko beste erakunde antzeko bat, eta horien berezitasunekin lotutako inguruabar egokiak dituztenak (denbora eremua, eremu geografikoa eta Ertzaintzak egindako txosten objektiboetan jasotakoak).

D. BAIMENA EZ EMATEKO ARRAZOIAK.

Kirol proba bat edo txirrindularitza martxa bat ez egiteko kontuan hartu beharreko datuak:

- NBP aktibatua eta operatiboa.
- Goizeko proba arratsaldeko probaren artean 3 orduko aldea ez egotea.
- Kirol ekitaldiak hasteko eta amaitzeko ordutegia, arratsaldez: 16:00-18:00.
- Ibilbideen/ordutegien araberako baldintzatzaileak: ezaugarri orografiko eta trafikoko dentsitate bereziak ikusita, proben segurtasuna bermatzeko, Trafikoko Lurralde Unitateek debeku edo muga espezifikoak ezarri ahal izango dituzte. Debeku horiek kirol ekitaldien antolatzaileei jakinaraziko zaizkie aldez aurretik.

E. POLIZIA-ESTALDURA.

Dagokion Trafikoko Lurralde Unitateak zehaztuko du proba edo ibilbidearen segurtasuna bermatzeko behar diren estaldura mota eta baliabide (material/pertsonal) kopurua, ezaugarrien arabera (parte-hartzea, ibilbidea...).

Arau orokor gisa, polizia baliabide nahikoak izanez gero, honako hauek egingo dira:

- Polizia-laguntza: kirol probetan eta txirrindularitza martxetan hiriarteko bideetan edo zeharbideetan (automobilismoetan izan ezik).
- Polizia-gainbegiratzea: bideko probak (oinezkoen lasterketak) edo zirkuitu itxikoak (automobilismoa). Hona hemen estaldura mota horren ondorioak:
 - Poliziaren nahitaezko presentzia (probaren hasiera/amaiera).
 - Segurtasuneko Plan Operatiboa aldeztu aurretik onartzea (antolatzaileek eskaerarekin batera aurkeztu behar dute).
 - Ibilbidea eta segurtasun neurriak betetzen direla kontrolatzea.
 - Bidegurutzeak kontrolatzeko lanetan laguntzaileei laguntzeko aukera.

F. TXIRRINDULARITZA MARTXAK: POLIZIA KONTROLAREN HASIERA ETA AMAIERA.

Txirrindularitza martxen aurretik polizia-agente bat dago, probaren hasiera adierazten duena (bandera gorria), eta, amaieran, beste agente bat, martxa igarotzen den espazioaren amaiera markatzen duena (bandera berdea).

Bandera gorriaren eta berdearen artean ezartzen den irizpidea parte hartzaileen kopuruaren, ezarritako batez besteko abiaduraren eta ibilbidearen araberakoa izango da:

- i. Parte-hartzaileen kopuruari dagokionez:
 - 500 parte-hartzaile baino gutxiagorekin: bandera gorriaren eta berdearen arteko distantzia ez da ibilbidearen %5 baino handiagoa izango. (*Adibidez: 100 km-ko ibilbide baterako, irekitzeko autoaren eta ixteko autoaren arteko gehieneko distantzia 5 km-koa izango da*). Amaiera markatzen duen autoak gainditzen dituen parte hartzaileak poliziaren kontrolatik eta probatik kanpo geratuko dira.
 - 500 eta 1.000 parte-hartzaile artean: tolerantzia-marjina %10era arte zabal liteke. (*Aurreko adibideari jarraituz, 100 km-ko ibilbiderako, irekitzeko*

autoaren eta ixteko autoaren arteko gehieneko distantzia gehienez 10 km-ra handitu liteke). Amaiera markatzen duen autoak gainditzen dituen parte-hartzaileak poliziaren kontroletik eta probatik kanpo geratuko dira.

- 1.000 parte-hartzailetik gora: bandera gorriaren eta berdearen arteko distantzia agintaritzako agenteen eta probaren antolatzailearen arteko aurretiazko bileran zehaztuko da. Ixteko autoak gainditzen dituen parte-hartzaileek aurreko paragrafoan adierazitako ondorio berberak izango dituzte.

ii. Ezarritako batezbesteko abiadurari dagokionez:

Ezin izango da inoiz 30 km/h-ko abiadura gainditu. Hala ere, probaren ardura duten agintaritzako agenteek gehieneko abiadura murriztu ahal izango dute proba egin bitartean, baldin eta egiaztatzen bada parte-hartzaileen ehuneko handi bat (adibidez, %25) puntu horretan adierazitako marjinetatik harago dagoela.

iii. Ibilbideari dagokionez:

Nahitaezkoa izango da ibilbide bakarra izatea. Ibilbide luze bat eta labur bat duten proben kasuan, ibilbide laburrak luzearen barruan egon beharko du.

4. gehigarria – Baimena eskatzeko eta emateko prozedura.

A.- INTERESDUNAK.

Prozedura horietan interesdunak izango dira kirol ekitaldien antolatzaileak, bai pertsona fisikoak zein juridikoak, bai publikoak zein pribatuak.

Izapidetze elektronikoa nahitaezkoa edo borondatezkoa izango da, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua 1. eta 2. apartatuen arabera: nahitaezkoa pertsona juridikoentzat eta borondatezkoa pertsona fisikoentzat.

Nolanahi ere, nahitaez elektronikoki erlazionatu beharko dira 2023ko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15.1 artikulua a) eta f) ataletan aipatzen diren pertsona fisikoak eta haien ordezkariak (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak elektronikoki irispidean izatekoa).

Agindu horrek ezartzen duenez, enpresaburu indibidualak edo autonomoak edo haien ordezkariak Administrazioarekin nahitaez elektronikoki erlazionatu behar dira, beren lanbide jarduera gauzatzean egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.

B.- IZAPIDETZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA.

Kirol ekitaldiaren ibilbidea edo zati bat Euskadiko hiriarteko bideetan edo zeharbideetan egiten bada, Trafiko Zuzendaritzak emango du baimena. Zehazki, izapidetzea dagokio eskatutako ibilbidea igarotzen den Trafikoko lurralde bulegoari edo, hala badagokio, ibilbidea non hasten den, eta bulego horri.

C.- ESKAERA.

1) Aurkezteko epea.

Kirol ekitaldiaren antolatzaileak eskaera aurkeztu beharko du, dagokion dokumentazioarekin batera, proba egin baino 30 egun lehenago gutxienez, ZEOren II. eranskineko 2.3 artikuluan jasotakoaren arabera. Ekitaldia egiteko aurreikusitako eguna baino gutxienez 4 egun lehenago jakinaraziko da ekitaldiaren baimentzea edo ukatzea.

Lurralde bulegoek ez dute inolako probarik baimenduko, baldin eta antolatzaileek ez badute eskatutako dokumentazioa aurkeztu ekitaldia baino gutxienez 4 egun lehenago.

Hala ere, Trafiko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du ebazpena proba egin baino 20 egun lehenago jakinarazteko, baldin eta:

- Eskaera gutxienez 45 egun lehenago aurkezten bada.
- Eskaerak jarraian adierazitako baldintza guztiak betetzen baditu (dokumentazioa -hala badagokio-, tasa ordaintzea, nahitaezko aseguruak sinatzea...).

2) Eskaera inprimakia.

Baimen eskaera Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri: <https://www.trafikoa.euskadi.eus/kirol-probak/webtraf00-contentafecc/eu/>

3) Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (eskaera inprimakiko "Dokumentazioa" atalean sartu behar dena).

1) Kirol federazioak emandako antolaketa baimena, proba federatuen kasuan.

2) Probaren memoria: gutxieneko edukia. Probaren memoriaren gutxieneko edukia ez betetzea kirol ekitaldia ez baimentzeko arrazoia izango da.

a. Jardueraren izena eta, hala badagokio, edizioaren zenbaki kronologikoa.

b. Probaren araudia.

c. Ibilbidearen krokis zehatza, noiz egingo den, ibilbidea, profila, ibilbidearen puntu erabakigarrietatik igarotzeko ordutegi probablea, probaren hasierarentzat eta itxierarentzat aurreikusitako batezbestekoa.

Ekitaldiaren ibilbidea PDF formatuan ere aurkeztu beharko da.

d. Antolatzailearen identifikazioa: zuzendari exekutiboa eta bide segurtasuneko arduraduna. Biek bete beharko dituzte ZEOren II. eranskinean jasotako baldintzak.

e. Aurreikusitako parte hartzaile kopurua, gutxi gorabehera.

Datu hori beharrezko osasun zerbitzuekin lotuta dago (anbulantziak, medikuak eta sorosleak).

- ≤ 750 parte-hartzaile: ambulanzia 1 + mediku 1
- 750 – 1749: 2 ambulanzia + 2 mediku + 2 sorosle
- 1750 – 2749: 3 ambulanzia + 3 mediku + 2 sorosle
- 2750 – 3749: 4 ambulanzia + 4 mediku + 2 sorosle
- 3750 – 4749: 5 ambulanzia + 5 mediku + 2 sorosle

f. Proba seinaleztatzeko neurriak eta arriskutsuak izan daitezkeen lekuetan aurreikusitako gainerako segurtasun gailuak proposatzea, bai eta gaitutako laguntzaileek bete beharreko eginkizuna ere. Hori

guztia txosten xehatu baten bidez egingo da, eta probaren bide segurtasunaren arduradunak edo ordena indarrek bere garaian jakinaraziko diete puntu gatazkatsu horien zaintzaz arduratzen diren langileei.

g. Erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguruak kontratatu izanaren egiaztatzea.

i. Erantzukizunpeko adierazpena eskaera inprimakian sinatzen ez denean.

ii. Bulego izapidegileak hala eskatzen duenean.

h. Probaren ibilbide fitxategia (ibilbidea): GPX fitxategian eta PDF formatuan.

4) Eskaera egiteagatik ordaindu behar den tasa.

Eskaera elektronikoki edo aurrez aurre aurkeztu ondoren, eskaera egiteagatikotasaren likidazioa automatikoki bidaliko da Nire karpetera. Ordainketa egiteko epea 10 egun baliodunekoa izango da.

D.- BULEGOAREN IZAPIDETZEA.

1) Nahitaezko txostenak.

Eskaera egiteagatik tasa ordaindu dela egiaztatu ondoren, eta ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, edo, hala badagokio, dagozkion zuzenketak egin ondoren, bulego izapidegileak nahitaezko txostenak eskatuko dizkie ibilbidea egingo den bidearen titularrari eta dagokion trafiko unitateari.

Txostena egiteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 80.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aipatutako txostenak lotesleak izango dira ekitaldia egitearen aurkakoak direnean edo ZEOren II. eranskineko 2.2c) artikuluko preskripzio tekniko jakin batzuk betetzera baldintzatzen dutenean.

2) Ertzaintzaren txostenaren edukia.

Kirol ekitaldiak baimentzeko espedientean Ertzaintzak egiten duen txostenak informazio hau jaso behar du gutxienez:

i. Baimena ematearen bidezotasunari buruzko balorazioa, txostena positiboa edo negatiboa den adierazita.

- Txostena aldekoa bada, froga kontrolatzeko eta zaintzeko erabiliko diren giza baliabideak eta baliabide materialak jasoko dira txostenean. Baliabide horiek nahikoak izan beharko dira probaren segurtasun baldintzak betetzen direla bermatzeko. Txostenaren edukiak txostena egiten duen organoa lotzen du alderdi zehatz horiei dagokienez. Aseguruei buruzko dokumentazioa eskatzen den gutxieneko aurrerapenarekin aurkeztu beharko da.
- Txostena aurkakoa bada, balorazio hori justifikatzen duten arrazoiak eta proba egiteko dauden arazoak adieraziko dira txostenean.

Trafiko Unitatearen kontrako txostenean zehaztutako kausak desagertzen badira, Ertzaintzaren beste txosten bat eskatu beharko da.

- Lurralde unitatearen txostenak plan operatiboaren balorazio bat jasotzen badu eta erakundeak zehaztutako neurriak zuzentzen baditu edo aurreikusi gabeko neurri berriak gehitzen baditu, antolatzaileei eskatuko zaie balorazio horretara egokitutako plan berri bat aurkezteko.

Plan operatibo berria baimenari erantsiko zaio, baimena ematen bada, eta proba egiten den bitartean aurkeztu beharko da proba gainbegiratzeko ardura duten agintaritzako agenteek eskatzen badute.

- Trafiko unitateak uste badu ekitaldiaren gaineko kontrol motak (gainbegiratzea edo laguntzea) aurreikusitakoarekin bat ez datorrela, bulego izapidegileari jakinaraziko dio, antolatzaileari helaraz diezaion, hala badagokio, plan operatiboa egokitzeko.

3) Ertzaintzak egin beharreko kontrol eta ordena lanengatiko tasaren likidazioa.

Baimena eman aurretik, bulego izapidegileak «kirol probak, txirrindularitza martxak eta beste ekitaldi batzuk kontrolatzeko eta ordenatzeko polizia laguntzagatiko» tasa likidatuko du, ekitaldian lan egingo duten ertzainen kopurua kontuan hartuta, Trafikoko Lurralde Unitatearen txostenean jaso den bezala.

Aurreko likidazioa ez da egingo antolatzaileak tasa ordaintzetik salbuetsita badaude (EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren 104. artikulua).

E.- EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.

Txosten guztiak bildu ondoren, bulego izapidegileak ebazpena eman eta jakinaraziko du Nire karpetan, edo ohiko moduan izapidetze presentzialaren kasuan.

Ebazpenak eskatutako ekitaldia egitea baimentzen badu, ekitaldia modu seguruan garatzeko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak jasoko dira.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Trafiko Zuzendaritzaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluen arabera.

5. gehigarria – Aseguruak.

Zirkulazio Erregelamendu Orokorraren II. eranskinak 2.3 artikuluan ezartzen duenez, antolatzaileek kirol proba bat eskatzeko aurkeztu behar duten dokumentazioaren artean dago eranskin horren 14. artikuluan aipatzen diren erantzukizun zibileko aseguruak eta istripu aseguruak kontratatu izanaren egiaztagiria. Lehenengoa, erantzukizun zibilari buruzkoa, hirugarrenei (pertsonei eta ondasunei) eragin dakizkiekeen kalteak estaltzeko, eta bigarrena, istripuei buruzkoa, jardueran aritzearen ondoriozko arriskuak estaltzeko (batez ere osasun arriskuak).

1. Erantzukizunpeko adierazpena.

Lehen, aseguruaren kontratazioa eta estaldurak justifikatzeko aseguru poliza aurkezten zen. Hala ere, eta izapidetzea errazte aldera, dokumentazio horren ordez gaur egun antolatzailearen erantzukizunpeko adierazpena eskatzen da. Adierazpen horretan, aseguru horiek Zirkulazio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako estaldura eta muga kuantitatiboekin sinatuta dituela adierazi beharko du antolatzaileak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua ezartzen duenez, erantzukizunpeko adierazpenak berekin dakar deklaratuak aseguruak egiaztatze dokumentazioa edukitzea eta Administrazioaren esku jartzea lurralde bulego izapidegileak eskatzen duenean.

Erantzukizunpeko adierazpena eskaera inprimakian sartuta dago, eta hiru ataletan banakatu da, baimena eskatzen den aseguru motaren eta kirol ekitaldiaren arabera.

2. Estaldurak.

Arestian aipatu den bezala, parte hartzaileek erantzukizun zibileko aseguru baten eta istripu aseguru baten estaldura izan beharko dute.

a. Istripu aseguruari dagokionez:

Aseguru horrek nahitaezko kirol aseguruaren gutxieneko prestazioak zehazten dituen ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuaren eranskinean ezarritako gutxieneko estaldurak bete behar ditu. Baldintza hori ez zaie aplikatuko ibilgailu historikoak erakusteko ekitaldien eskaerei.

Hauek dira eranskin horretan ezarritako gutxieneko estaldurak:

1. Asistentzia mediko kirurgikoa eta osasun asistentzia lurralde nazionalen gertatutako istripuetan, gastu mugarik gabe, eta hemezortzi hilabetera arteko denbora mugarekin, istripuaren egunetik aurrera.
2. Farmazia sorospena ospitale erregimenean, gastu mugarik gabe, eta hemezortzi hilabeteko denbora mugarekin, istripuaren egunetik aurrera.

3. Protesien eta osteosintesi materialaren gastu guztiak ospitalean artatzea, hemezortzi hilabeteko denbora mugarekin, istripua gertatzen den egunetik aurrera.
4. Istripua gertatu eta hemezortzi hilabeteko aldian egindako errehabilitazioak eragindako gastuak.
5. Medikuntza-, kirurgia-, farmazia- eta osasun-sorospena atzerrian gertatutako istripuetan, 1.000.000 PTako (6.010,12 euro) mugarekin kontzeptu guztiengatik, eta hemezortzi hilabeteko mugarekin istripuaren egunetik aurrera. Prestazio hori bateragarria da kirol-istripuak eragindako galera anatomiko edo funtzionalengatiko kalte-ordainekin, baldin eta tratamendua amaitzean ematen badira.
6. Kirol istripuak eragindako galera anatomiko edo funtzionalengatiko kalte-ordainak; gutxienez, 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro) minusbaliatu handientzat (tetraplegia).
7. Kirol jardueran izandako istripu baten ondorioz heriotza gertatzen denean laguntzea, 1.000.000 pezetatik beherakoa ez den zenbatekoan (6.010,12 euro).
8. Heriotza kirol jardueran gertatzen denean laguntzea, baina heriotza horren zuzeneko kausarik gabe, gutxienez 300.000 pezetakoa (1.803,04 euro).
9. Kirol istripu bat sendatzeko material ortopedikoa erosteko gastuak (prebentziorik ez), material ortopediko horren publikoarentzako salmenta prezioaren 100eko 70ekoan, gutxienez.
10. Odonto estomatologian sortutako gastuak, kirol istripuak eragindako ahoko lesioengatik. Gastu horiek 40.000 pezetaraino (240,41 euro) estaliko dira.
11. Kaltetua istripuaren tokitik aseguru polizaren bidez hitzartutako ospitaleetan behin betiko sartu arte lekualdatzeko edo ebakutzeko gastuak, lurralde nazionalaren barruan.
12. Estatuko lurraldeko probintzia guztietan zentro edo fakultatibo itunduek laguntza medikoa ematea.
13. Espainia osoan zentro eta fakultatibo itunduak askatasunez aukeratzea.

b. Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez:

Araudiak eskatzen du parte hartzaileek erantzukizun zibileko aseguru bat izatea, kirol proba egitean hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteak estaliko dituen (parte-hartzaileei, antolatzaileei, laguntzaileei eta probaren antolaketarekin

zerikusia duen guztiaren ondoriozko erantzukizun zibila barne). Erantzukizun zibileko aseguruak urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuak (nahitaez harpidetu beharreko ibilgailu motordunen erantzukizun zibileko aseguruari buruzkoak) kalte pertsonal eta materialetarako ezartzen dituen muga berberak izan behar ditu. Arau hori indargabetu egin zuen irailaren 12ko 1507/2008 Errege Dekretuak, ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren Erregelamendua onartzen duenak.

Hala ere, TZNren 11/TV-70 Instrukzioak argi utzi zuen 7/2001 Errege Dekretuak ezarritako muga kuantitatiboek indarrean jarraitzen dutela. Eta, beraz, 1507/2008 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako zenbatekoak ibilgailu motordunek parte hartzen duten probetan parte hartzen duten gidarien aseguru bereziari baino ez zaizkio aplikatzen, bereziki horretarako prestatutako zirkuituetan egiten direnean.

Kirol proba edo txirrindulari martxa dela eta gerta litekeen erantzukizun zibila estaltzen duen aseguruak gutxienez honako zenbateko hauek estali beharko ditu gertatzen den ezbehar bakoitzeko:

- Kalte pertsonalak: 350.000 euro biktima bakoitzeko.
- Kalte materialak: 100.000 euro ezbehar bakoitzeko, ondasunetan izandako kalteengatik, edozein dela ere kaltetutako ibilgailu edo ondasunen kopurua.

Bereziki gaitutako zirkuituetan probak egiten dituzten **ibilgailu motordunen gidarientzako aseguru berezia**: Berariaz horretarako prestatutako edo proba horiek egiteko gaitutako zirkuituetan egindako kirol probetan parte hartzen duten ibilgailu motordunen gidariek erantzukizun zibil bereziko aseguru bat izan beharko dute, 1507/2008 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Hau da, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen testu bateginean ezarritako nahitaezko estalduren zenbatekoak estali beharko dituzte:

- 70 milioi euro ezbehar bakoitzeko, pertsoneri eragindako kalteen biktima kopurua edozein dela ere.
- 15 milioi euro ondasunetan izandako kalteetan izandako ezbehar bakoitzeko.

OPEN probetan aseguru horrek federatu gabeko parte hartzaileak ere estali behar ditu, gutxienez 849/1993 Errege Dekretuaren estaldurak bermatzeko.

3. Aseguru polizei eta debekatutako klausulei buruzko argibideak.

Atal honen xedea da kirol proben antolatzaileek kontratatutako aseguru polizen baldintza orokorretan eta/edo partikularretan agertu ohi diren klausula eredu batzuk argitzea eta horiek aplikatzeko irizpideak ezartzea.

1. – Erantzukizun zibileko aseguru polizetan, urteko mugak edo urtebetetik beherako aldiak:

Ezarritako nahitaezko gutxieneko estaldurak ez dira aldi jakin bati buruzkoak, ezbehar bakoitzeko eska daitezkeen gutxieneko estaldurak baizik.

Ohikoa izaten da gehieneko diru muga bat ezartzea denbora tarte jakin baterako (normalean, urtekoa). Horrela, kirol proben ondorioz eragindako kalteak ordaindu ahala, murriztu egiten da egiteke dauden probetan sor daitezkeen kalteak ordaintzeko dagoen zenbatekoa.

Hala ere, instrukzio honetan ezartzen diren gutxieneko zenbatekoak ezbehar bakoitzerako dira, eta, ondorioz, ezin da horrelako klausularik onartu, baldin eta klausula horien bidez urteko zenbatekoa mugatzen bada, edo ezbehar bakoitzeko eskatutako gutxieneko zenbatekoa mugatzen bada beste edozein baldintza dela eta.

2.- Poliza batzuek aseguruaren estalduratik kanpo uzten dituzte "ibilgailu motordunen eta atoian eramandako edo horietan sartutako elementuen erabileratik eta zirkulaziotik eratorritako kalteak".

Kirol probetarako erantzukizun zibileko aseguruak kirol proba egitearen ondoriozko erantzukizun zibila estali beharko du. Beraz, barnean hartzen du parte hartzaileei, antolatzaileei, laguntzaileei eta probaren antolaketarekin zerikusia duen guztiaren ondoriozko erantzukizun zibila (ibilgailu laguntzaileak, hesiak edo harmailak erortzea, etab.).

Ibilgailu motordunek eta kirol probarekin batera doazenek edo kirol proba babesten dutenek kontratatu behar duten nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruak baldintza arruntetan zirkulatzeak eragin ditzakeen kalteak estaltzen ditu. Aitzitik, kirol proba baten garapenarekin lotutako funtzioak betetzen dituztenean (bidegurutzeak ixtea, proba irekitzen edo ixten laguntzea, etab.) ez dira zirkulatzen ari Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean ezarritako araubide arruntaren arabera,

eta ezerk ez du baztertzen epaileak erantzule egitea probaren antolatzailea ibilgailu horietako batek eragindako ezbehar batengatik.

Ondorioz, ez da onargarria atal honetan aipatzen den bazterketa, gutxienez aseguru polizetan idatzi ohi den bezala.

3.- Poliza batzuek azpikontratistei eta haien enplegatuei zuzenean egotz dakiekeen erantzukizun zibila ere kanpoan uzten dute.

"Ereduzko" klausula bat da, kirol probetan sortzen diren bestelako arriskuak aseguratzeko pentsatua. Nolanahi ere, baztertze hori ere ez da onargarria; izan ere, kirol proba bat ezin da inola ere estaldurarik gabe geratu antolatzaileak probaren antolaketa azpikontratatu duelako. Kasu horretan, antolatzailearen aseguruak estali beharko ditu kalteak, edo azpikontratatistak aseguru bat kontratatu beharko du. Beraz, klausula hau ez da baliozkoa, eta ez da agertu behar kirol proben antolatzaileek aurkeztutako polizetan.

4.- Aipatu behar da denborak aurrera egin ahala ereduazko klausula berriak agertu direla erantzukizun zibileko aseguru polizetan, kirol probetan aseguratu behar den arriskuaren izaerarekin bateraezinak direnak. Adibidez, «lehiaketa, karrera, lehiaketa eta/edo profesioaletako kirolen» ondoriozko ezbeharrak berariaz baztertzen dituztenak. Beraz, horrelako klausulek ez dute balio, eta ez dira agertu behar kirol proben antolatzaileek aurkeztutako polizetan.

6. gehigarria – Segurtasuneko plan operatiboa. Edukia.

Soilik gainbegiratuko diren kirol ekitaldiak baimentzeko, probaren antolatzaileek segurtasun plan operatibo bat aurkeztu beharko dute eskabidearekin eta gainerako nahitaezko dokumentazioarekin batera. Plan horretan, probaren segurtasuna bermatzeko dispositiboa zehaztuko da. Plan horrek ez du salbuesten ZEOren II. eranskinean ezartzen diren eta zorrotz bete beharko diren segurtasun neurriak betetzetik.

Segurtasuneko plan operatiboaren edukia:

1.- BALIABIDEEN DESKRIBAPENA.

Antolatzaileek proba dela eta segurtasuna bermatzeko dituzten giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapen orokorra.

- Zuzendari exekutiboa (titularra eta ordezkoa): izena, NANA, gidabaimenaren fotokopia, harremanetarako telefonoa proba egin bitartean.
- Bide segurtasuneko arduraduna (titularra eta ordezkoa): izena, NANA, gidabaimenaren fotokopia, harremanetarako telefonoa proba egin bitartean.
- Erakundearen baliabideak
 - Ibilgailuak: irekitze eta itxiera ibilgailuak, ZEOren II. Eranskinaren 9.3 artikulua dioen bezala.
 - Osasun zerbitzuak (ZEOren II. eranskineko 10. artikulua): anbulantzien, medikuen eta OLTen kopurua.
- Gaitutako laguntzaileak: pertsonen kopurua eta ZEOren II. eranskineko 13. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztelaren adierazpena.
- Laguntza ibilgailuak: moto loturak, antolatzailearen ibilgailu kopurua.
- Komunikabideak (deskribapena): telefonia, talkie-ak, etab.
- Bestelakoak: epaimahai teknikoa, komisario kopurua, baliabide materialak (konoak, banderak, seinaleak, zintak, hesiak, etab.)

2.- PUNTU ETA TARTE ARRISKUTSUEN KOKAPENA.

Atal honetan zehaztuko dira beren ezaugarriak direla eta segurtasun neurriak indartu behar dituzten puntuak eta tartekak (bidegurutzeak, ikusleak kontzentratzen diren tartekak, probara bideratutako galtzadaren eta bidearen beste erabiltzaileen arteko tartea, etab.). Gainera, arrisku horien inguruan hartutako neurriak deskribatuko dira. Beharrezkoa bada, krokis edo marrazki baten bidez azalduko da.

- Zaintza handiagoa behar duten puntuen eta tarteen deskribapena.
- Puntu eta tarte horietan gaitutako laguntzaileak eta bete beharreko funtzioa.
- Seinaleztapen- eta segurtasun-gailuen deskribapena: zintak, hesiak, konoak, mozketa seinaleak, ibilbide alternatiboen adierazpena, etab.

3.- ERREPIDEEN ITXIERAK.

- Berariazko seinaleztapena.
- Ibilbide alternatiboak adieraztea.
- Ezaugarri bereziengatik edo iraupenagatik garrantzitsua bada: eraginpekoek behar besteko aurrerapenarekin jakinaraztea.

4.- IBILBIDEA (RUTOMETROA).

Modu eskematikoan: probari segurtasuna emateko hartutako neurriak, erabili beharreko bideak (km, udalerrria, ibilbidearen xehetasunak) eta egoki diren ohar guztiak.

- ✓ Probaren ibilbidearen fitxategi bat ere aurkeztu beharko da, GPX fitxategian eta PDF formatuan, eskaera inprimakiko Dokumentazioa atalean sartu behar dena.

5.- LAGUNTZAILEENTZAKO JARRAIBIDEAK.

Probaren bide segurtasuneko zuzendariak laguntzaileei beharrezko jarraibideak eman dizkielaren adierazpena, kirol proba egin bitartean bete behar dituzten eginkizunei buruz.

Ekitaldi horietan antolakuntzari laguntzeko laguntzaileek parte hartzen badute parte hartzaileek bakarrik erabiltzeko lekuan, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren II. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta zeregin horiek egiteko ezagutza, trebetasun eta gaitasun egokiak izan beharko dituzte.

Laguntzaileek bete behar dituzten baldintzak, jarraibideak eta eginkizunak «Kirol-probetako laguntzaileentzako jarraibideak» dokumentuan daude jasota, trafikoko web-orrian: <https://www.trafikoa.euskadi.eus/hasiera/>

III. ERANSKINA.- JARRAIBIDEAK JASO BEHAR DITUZTEN KIROL- EKITALDIAK.


Beste ekitaldi mota batzuk, kirol izaera izan arren, ezin dira izapidetu Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako kirol proba gisa (55. artikulua eta II. eranskina).

Gertaera hori trafikorako ez den ibilbide batetik igarotzen da gehienbat eta bidean oso eragin txikia du (zeharkako gurutzatze puntualak edo garrantzi txikiko bide erabilerak ditu).

1. gehigarria – Jarduera horien baldintza bereziak.

Jarduera horiek, ibilgailuen zirkulaziorako bideetan eragina dutenez, oso txikia bada ere, baldintza jakin batzuk bete behar dituzte:

- Errepidea zeharkatzen duten puntuak behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute, Errepideei buruzko Jarraibideko 8.3-I.C arauan xedatutakoaren arabera (TR-301 eta TP-50 motako seinaleekin egindako eredu bat atxikitzen da), eta antolatzailea arduratuko da erabiltzaileei egin daitezkeen maniobrei buruzko informazioa emateaz.



Seinaleak azken parte-hartzailea igaro ondoren kendu beharko dira.

- Gainera, puntu horiek antolatzaileko kideek babestuko dituzte. Haiek elementu islatzaileak dituzten homologatutako ikuspen handiko jantziak eramango dituzte (31/1995 Legea), bai eta eskuzko seinaleztapen ekipoa

ere, arrisku eremuetan ikusleak egotea eragozteko. Era berean, seinaleztapen elementu egokiak izan beharko dituzte.

- Ekitaldiaren kontrola eta ordena, bai parte-hartzaileei dagokienez, bai biderearen gainerako erabiltzaileei dagokienez, gaitutako antolatzaileko langileei dagokie, eta horiek probaren segurtasun arduradunaren jarraibideak beteko dituzte.
- Probaren ondorioz errepide edo bide publikoetan eta hirugarren pertsonetan kalterik sortuz gero, antolatzaileek erantzun beharko dute. Halaber, seinaleak kentzeaz eta errepidearen eragin eremuetan gerta daitezkeen kalte guztiak garbitzeaz eta konpontzeaz arduratu beharko dira.
- Ezin izango da publizitaterik jarri, zoladuraren gainean pintaketarik egin, eta ezin izango dira erabili errepideko elementuak kartelak esekitzeko zirkulazioaren seinaleztapenarekin, antolamenduarekin, orientazioarekin eta segurtasunarekin lotutakoak.

2. gehigarria – Kirol ekitaldien urteko egutegia egitea.

Biderearen gaineko eragin horiek, garrantzi txikikoak direnez, ez dira jasoko kirol ekitaldien urteko egutegian.

3. gehigarria – Jarraibideak eskatzeko prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

A.- INTERESDUNAK.

Prozedura horietan interesdunak izango dira kirol ekitaldien antolatzaileak, bai pertsona fisikoak zein juridikoak, bai publikoak zein pribatuak.

Izapidetze elektronikoa nahitaezkoa edo borondatezkoa izango da, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua 1. eta 2. apartatuen arabera: nahitaezkoa pertsona juridikoentzat eta borondatezkoa pertsona fisikoentzat.

Nolanahi ere, nahitaez elektronikoki erlazionatu beharko dira 2023ko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15.1 artikulua a) eta f) ataletan aipatzen diren pertsona fisikoak eta haien ordezkariak (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak elektronikoki irispidean izatekoa).

Agindu horrek ezartzen duenez, enpresaburu indibidualak edo autonomoak edo haien ordezkariak Administrazioarekin nahitaez elektronikoki erlazionatu behar dira, beren lanbide jarduera gauzatzean egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.

B.- IZAPIDETZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA.

Ukitutako bidea EAEko hiriarteko bide bat edo zeharbide bat bada, Trafiko Zuzendaritzak emango ditu jarraibideak. Zehazki, izapidetzea dagokio jarduerak zein bidean eragina duen, eta bide hori dagokion Trafikoko Lurralde Bulegoari.

C.- KOMUNIKAZIOA.

1) Aurkezteko epea.

Trafiko Legearen 12. artikulua arabera, sustatzaileek edo antolatzaileek gutxienez hamar egun balioudun lehenago jakinarazi beharko dute.

2) Komunikazio inprimakia.

Komunikazio inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/komunikazioa/zirkulazioaren-gaineko-eraginei-buruzko-jakinazpenak/web01-tramite/eu/>

3) Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (eskaera inprimakiko "Dokumentazioa" atalean sartu behar dena).

- Afekzioa jasoko duen bidearen titulartasuna dagokion Foru Aldundiaren baimena/txostena.*
- Planoak.
- Ibilbidea.

** Arabako Lurralde Historikoan bulego izapidegileak jasoko du oniritzia, eskabidea aurkeztu ondoren.*

D.- BULEGOAREN IZAPIDETZEA.

Jakinarazpena jaso ondoren, dagokion lurralde bulegoak egoera aztertuko du eta dagozkion jarraibideak emango ditu.

E.- EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.

Jarraibide horiek dituen ebazpena Nire karpetan jakinaraziko da, edo ohiko moduan, izapidetze presentzialaren kasuan.

Ebazpenarekin batera, tasa igorriko da, eskatzailea ordaintzetik salbuetsita ez badago (EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren 104. artikulua).

4. gehigarria – Aseguruak.

Ez da asegururik behar.

5. gehigarria – Segurtasuneko plan operatiboa: edukia.

Ez da segurtasun plan operatiborik behar.

IV. ERANSKINA.- PROZEDURAREN KOORDINAZIOA.

Trafiko Zuzendaritza arduratuko da kirol ekitaldietarako baimenak eta jarraibideak eta horiekin lotutako gainerako izapideak emateko eta koordinatzeko irizpideak ezartzeaz.

Ondorioz:

- ✓ Instrukzio hau eta eranskinak eguneratuko ditu, planteatzen diren kudeaketa egoera berrietara egokitzeko. Halaber, espediente horiek izapidetzeko aplikatu beharreko irizpideak egokituko dira.
- ✓ Kirol ekitaldiak izapidetzen laguntzen duten prozedura informatikoak koordinatuko ditu.
- ✓ Kirol ekitaldien urteko egutegiak egiteko eta argitaratzeko lanak koordinatuko ditu.
- ✓ Ertzaintzako trafiko unitateekiko eta federazioekiko harremanak koordinatuko ditu.
- ✓ Beste administrazio batzuek baimendu beharreko kirol ekitaldiei buruzko txostenak bideratuko ditu.
- ✓ Prozedura koordinatzeko eta eguneratzeko behar diren lan guztiak egingo ditu.

V. ERANSKINA. AUTOMOBILISMOA: ALDI BATERAKO ZIRKULAZIO-BAIMENAK DITUZTEN IBILGAILUEK IBILGAILU MOTORDUNEKIN EGITEN DITUZTEN KIROL-PROBETAN PARTE HARTZEA (PLAKA GORRIAK DITUZTEN IBILGAILUAK).

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 55. artikulua motordun ibilgailuek parte hartzen duten kirol probak egitea aurreikusten du. Proba horiek trafikorako itxitako bideetan zein trafikorako irekitako bideetan egin daitezke. Bestalde, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak ezartzen du ibilgailu motordunekin zirkulatzeko beharrezkoa dela zirkulatzeko administrazio baimena lortzea.

Ondorioz, trafikoari irekitako bideetan ibilgailu motordunekin egiten diren kirol probetan parte hartzen duten ibilgailuek behar bezala matrikulatuta egon behar dute, eta aldeaz aurretik zirkulatzeko administrazio baimena lortu behar dute.

Hala ere, ibilgailu horien (lehiaketako ibilgailuak) ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eta trafiko arloan eskumena duten beste agintaritzak batzuek aldi baterako zirkulazio baimenak dituzten ibilgailu motordunekin egiten diren kirol probak onartzen dituztenez, komeni da aldi baterako zirkulazio baimena duten lehiaketako ibilgailuek oro har trafikorako zabalik dauden bideetan parte hartzea eta, hala badagokio, zirkulatzeko, honako kasu hauetan:

- **Rally motako motor proben lotura tarteak.** Organo eskudunak baimendutako rally motako ibilgailu motordunen kirol proba batean behar bezala inskribatuta dauden lehiaketa ibilgailuek zirkulatu ahal izango dute proba egiten ari diren bitartean:
 - Trafikoari oro har irekitako lotura bideguneetatik.
 - tarte kronometratuen eta trafikorako itxien artean, eta
 - oro har trafikoari irekitako tarte edo ibilbideengatik, baimenean behar bezala jasota badaude:
 - Zirkulazio arauak errespetatuz eta rally-aren logistika eta antolamendua errazteko.
- **Ibilgailuaren bizilekutik rally motako kirol proba egingo den lekurako zirkulazioa:** Organo eskudunak baimendutako (edozein modalitatetan) rally motako kirol proba batean behar bezala inskribatuta

dauden lehiaketa ibilgailuek beren ohiko bizilekutik proba egiten den tokira zirkulatu ahal izango dute, trafikorako zabalik dagoen errepidetik, oro har, egiaztapenak hasi baino 48 ordu lehenago. Irizpide bera erabiliko da proba egiten den lekutik ohiko bizilekura itzultzeko, azken sailkapena argitaratu eta 48 ordura arte.

- Agintaritzaren agenteei egiaztapen lanak errazteko: automobilismoaren antolatzaileak edo federazioak (Euskal Autonomia Erkidegokoa edo proba egiten den lurraldekoa) ziurtagiri bat egingo du aldi baterako zirkulazio baimena duen lehiaketako ibilgailu bakoitzeko. Ziurtagiri horretan, ibilgailua behar bezala inskribatuta dagoela eta proba horri buruzko datuak (proba egiten den lekua, eguna eta ordua) jasoko dira. Gidariak aurkeztu beharko du dokumentua agintaritza agenteak eskatzen dionean.

Oro har, proba edo kirol ekitaldia ibilgailu motordunarekin antolatzen duena behartuta egongo da behar bezala inskribatutako lehiaketa ibilgailuen eta horien gidarien zerrenda gordetzera eta, hala badagokio, agintaritza agenteei ematera.

AUTOMOBILISMO PROBETAN PARTE HARTZEN DUTEN ADINGABEAK.

Zirkuitu itxian egiten diren automobilismo probetan, baldin eta probako tarte bat edo batzuk zirkulaziorako zabalik dauden bideetatik badoaz, parte-hartzaileek, tarte horietan, BSLn eta garapen erregelamenduetan ezarritako arauak eta seinaleak errespetatuko dituzte. Tarte horiek zirkulaziorako zabalik egongo dira lehiaketarik ez dagoen lotura tarteak direlako, edo tarte horietan parte-hartzailearen bat oraindik atzeratuta dagoelako trafikora irekitzen direnean. Horrelakoetan, trafikoari eta bide segurtasunari buruzko legeriak lehentasuna izango du kirolei buruzko arauen gainetik.

Horregatik, adingabeek ezin izango dute zirkulatu irekitako tarte horietatik, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean ezarritako beharrezko baldintzak betetzen ez dituztelako.

Proba horietan parte hartzen duten guztiek Zirkulazio Erregelamendu Orokorraren II. eranskineko artikuluetan, kirol araudietako arau berezietan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa bete beharko dute.

Hala ere, gaur egun igo egin dira 18 urtetik beherako pilotuek egindako eskaerak probetako tarte itxietan parte hartzeko, eta Trafiko Zuzendaritzak uste du adingabe

horiek automobil probetan parte hartu ahal izango dutela baldin eta kirol erregelamenduetako arau partikularrek eta aplikatu beharreko gainerako arauak hala baimentzen badute. Hori dela eta, probaren araudiak horretarako aukera ematen badu, adingabeak zirkulatu ahal izango du kirol probak zeharkatzen dituen trafikorako bide itxietatik bakarrik. Zirkulazio arrunteko tartetan, ordea, ezin izango du zirkulatu.

VI. ERANSKINA: KIROL EKITALDIAK EKITALDI MOTAREN ARABERA BALDINTZATZEA.

- ✓ Automobilismoa.
- ✓ Atletismoa.
- ✓ Txirrindularitza.
- ✓ Triatloia.
- ✓ Txirrindularitza martxak.
- ✓ Beste kirol proba batzuk.

Kirol ekitaldi guztietarako baldintzapena ez da banaka egingo errepikakorra delako. Bide mota eta haren ezaugarriak hartuko dira kontuan kirol ekitaldiaren baldintzak ezartzeko.

Hala ere, baldintzak hemen aurki daitezke: www.trafikoa.euskadi.eus

VII. ERANSKINA: TRAFIKOKO LURRALDE BULEGOEN TXOSTENA, BESTE ADMINISTRAZIO ORGANO BATZUEK BAIMENDU BEHARREKO KIROL EKITALDIEI BURUZKOA.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren txosten eskaera Trafiko Zuzendaritzaren zerbitzu zentralen bidez bideratuko da, eta hark egingo ditu mota horretako txostenak izapidetzeko behar diren koordinazio eginkizunak.

Hala ere, Trafikoko lurralde bulegoak dira organo eskudunak IEOren II. eranskinean aurreikusitako txostenak egiteko, proba EAEko hiriarteko bideetatik egiten denean, baina baimena beste administrazio organo bati dagokio (TZN).

Horretarako, txostenak eskatuko dizkiete bai ekitaldia egingo den bideen titularrei, bai kasuan kasuko trafiko unitateei ere. Txosten horiek egiteari dagokionez, aplikagarriak diren heinean, instrukzio honen II. eranskinean ezarritako irizpideei eutsiko zaie.

Estibaliz Olabbarri González
Trafikoko zuzendaria